

Karkara

karkara.eus

☞ Orioko eta Aiako aldizkaria • 2019ko maiatzaren 31a • 406. zenbakia



EH Bilduk irabazi ditu udal hauteskundeak Orion

Orion, 1256 botorekin EH Bildu izan da udal hauteskundeetako irabazlea. Aian, berriz, EAJ-k lortu du garaipena 549 botorekin.

ZINKU ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua.
konpromisorik gabe*

Andor Zinkunegi

667 740 279

Villar Autobusak

Bidai nazionalak eta nazioartekoak
83 eserleku




Autocares Villar

Orio (Gipuzkoa)

Tel: 609402537

Email: autocaresvillar@yahoo.es

www.autocaresvillar.com



LAGUNDU PLASTIKOAK MURRIZTEN

1-ZUZENEAN OTARREAN SARTU PRODUKTUA

2-BEHAR BADUZU, ESKATU ETA ERAMAN ETXERA GURE POLTSA BERRERABILGARRIAK

3-HURRENGOAN, ETXETIK EKAR DITZAKEZU POLTSAK



GARAY manufacture

SUKALDEAK

www.garay.eus

1989tik sukalde altzarietan lanean.

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU

Olabidea aldea 1
(Errotaberri industrialdea)

20.800 Zarautz

943 13 31 09

Sagasti LEIHOAK
Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua www.sagastileihoak.com

Moda eta osagarriak
iguande goiza zabalik!

Garbiñe Arregi
Herriko plaza, 5 - Orio • 635 706 265

ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARROZTEGIA OROKORREAN

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

JARRI PUBLIZITATEA KARKARAN

688 859 682

Usurbil Autoak
Zumartegi Industrialdea, Aitzezarra kalea, 24
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
usurbilautoak@gmail.com
Telf: 943 36 10 79

SALMENTA - MEKANIKA - KARROZERIA

677 109 902 usurbilautoak@gmail.com

PANDA 4X4 	TALENTO 	QUBO 2
500X 	SPORTAGE 	SORENTO
STONIC 	NAIRO HYBRID 	

IZARRA ELEKTROGAILUAK

205 € Samsung A20
139 € Samsung 14+
199 € TV SAMSUNG 32"
289 € Zanussi ZWF71240
39 € 3 kaxa kapsula aparatua

ESKANTZAK BETI

Eusko Gudari, 44 • Telf. 943 83 38 81 • 20810 Orio (Gipuzkoa)
izarraelectrodomesticos@gmail.com

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Erredaktore burua

Ainara Lasa

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Dorleta Agiriano
Aiora Larrañaga
Iñigo Exposito
Miriam Garcia
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkuudun

Publizitatea

Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileak

Eneritz Odriozola
Arturo Elosegi
Iñaki Larrañaga
Olatz Artola
Jon Garate
Marisa Arruabarrena
Meltxor Artetxe

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza S.A.L
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale
KARKARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzun-
kizunik. Karkaran argitaratuta-
koa berreman daiteke, osorik
edo zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Iñaki Larrañagari jarri dio puntua Mikel Iruretagoienak: Panderoak baditu mila zirrikitu. Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA

IÑAKI LARRAÑAGA (DOINUA: BIZKAIKO ABERATSAK)

1

Panderoak baditu mila zirrikitu,

oraindik ba guztiak ez ditut aurkitu. Hatz bat zulora gozo bestek bihurritu, irrintzika hastean ezin naiz gelditu! Larruz gozaraztea noiztik da delitu?

2

Tirikitaupataupa txapa gorri hotsa, albotik panderista zaharren ahotsa, lagunarte librea gauaren murrontza, berdin du pieza luze edo pausu motza, taupaka jartzen badu herrian bihotza.

3

Ekialdetik gugana bizi ta abila, inpernuko hauspoaren lagun borobila, zuloxtotik begira plazako gurpila, panderista xume bat bere erroen bila, erromeri zaharren azken maratila.



Euskal Herritik kanpo *tambour de basque* izenez ere ezaguna da panderoa.

Hurrengo bertsolaria:

Pello Saizar (Luxarbe)

Puntua:

Pello, animala guztietan zein duzu zure kuttuna?



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

“Agur lagun! eta milesker Jon, bihotz-bihotzez!”

Maiatzaren 9an hil zen Jon Rekarte, Aus_art Records disketxeko burua, arima eta bihotza. Gaixotu eta oso egun gutxitara utzi gaitu Jonek.

Ez naiz ni trebea idazten eta gauzak behar den moduan esaten, eta horretara jartzea asko kostatzen zait, baina, Jon nire lagun handiaren heriotzaren aurrean ezin nuen egon zerbait esan gabe.

Gogorapenak batzuetan borborka etortzen zaizkit, eta horrela hasi naiz kontu batzuk idazten, geroan ere gogoan izateko. Hogei urte baino gehiago izango dira Oñatiko Santa Ana aretoan ezagutu nuela. Grabaketa bat egitera etorria zen, ez dut gogoratzen noren eta zeren grabaketa. Baina orduan egon ginen elkarrekin euskal musikaren inguruko kontuak esaten, eta gogoan dut esan niola *Jo, Jon, ikaragarri gustatzen zait zuk egiten duzuna!*, eta komentatu nion Madinaren eta Agustiñoen artxiboko kontuak eta berak erantzun zidan *Bada, zeozer daukazunean eta nahi duzunean grabatuko dugu.*

Nire aldetik ez dago eragozpenik. Eguna, ordua eta lekua aukeratu eta han bilduko gara eta grabatu.

Hortik aurrera maiz elkartzen ginen eta nik nire proiektuen berri ematen nion (denetarako baietz esaten zidan) eta berak bere lanak eta bere proiektuak erakusten zizkidan. Zer esanik ez dago asko ikasten nuela berarekin, euskal musika zuen ardatz, eta asko zekien. Madinaren lanekin hasi ginen, *Arantzazu* Poema sinfoniko-korala CDra pasatu zidan eta horrela berrargitaratu ahal izan genuen 1985ean egindako grabaketa Bartzelonako Orkestra Sinfonikoak, *Oñati* Abesbatzak eta Elgoibarko Parrokiko abesbatzak, Juan Karlos Irizarren zuzendaritzapean. Argitalpen berria egin genuen Aus_art Records-ekin. Makinatxo bat CD grabatu eta argitaratu zizkidan. Ondoren etorriko ziren pianorako lanak, organorakoak, arparakoak, abesbatzak, otxoteak, gitarrarakoak,

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erredakziora eskura ekarri –Orioko edo Aiako Kultur Etxean– edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

eta abar. Berari asko gustatzen zitzaion grabaketa zaharrak digitalizatzea (MP3 formatura pasatzea eta txukun garbitzea). Auskalo zenbat zinta zahar, cassette eta disko zahar garbitu zizkidan.

Gogoan dut, duela 15 urte inguru Joxe Antonio Azpiatzuk, Jonek eta neuk egindako bidaia Ginebrara, Suitzako Euskal-etxeak prestatutako Euskal Jaian parte hartzera. Joxe Antoniok Euskal Herriko historiaz hitzaldia emango zuen, Jonek Aus_art Records diskoetxeko musika aurkeztuko zuen, eta ni bien laguntzaile lanetan. Donostian hartu genuen autobusa, dantzari eta rok musikarien artean. Lupe Azpiatzuk eskuzabalik hartu gintuen, eta ederki pasatu genuen. Halako batean, han agertu zitzaigun gure Iparragirre handiaren biloba, txiletarra bera. Aus_art_Records (the Basque classical label) disketxeko katalogoari begirada azkar bat ematen badiogu zerrenda oso luzea da. 200 CD baino gehiago. Pianorako musika; Abesbatzen musika; *Musika Sacra Vasconiae* izeneko saila, Arantzazuko musika, Iruñako Katedraleko musika, Euskal Kaputxinoak eta XX.mendeko musika, Organorako musika (organo joleak eta organoak), eta Musika instrumentala, Klarinetearen artea, Gitarraren artea, Txistu hotsak, Arpa eta Gitarra, Bandak, eta abar.

Zerrenda ikaragarria da. Euskal musika klasikoaren eremuan paregabea. Orain, bere lan hori guztia non geldituko da? Ez al du merezi aitortza zabal bat? Nik neurea egin beharra sentitzen dut, eta horra nire esker ona. *Mila esker Jon, hain eskuzabal eta bihotz-zabal izateagatik nirekin!* Nire doluminak eta besarkada handiena Jonen etxeko Pati, Ionari eta Manexi.

Ez dakit Jon sinestuna zen ala ez, eta egia esan, ez zait inporta ere. Baina badakit Jonek gure artistengan sinesten zuela: musikagileengan, musikariengan, idazleengan, poetengan eta abar. Mesanotxe gainean daukat iaz Jonek berak oparitu zidan *Lizardiren Olerkiak* liburua (bitxikeria hau 2. eskuko liburu azoka batean merke-merke aurkitu zuen eta niretzat erosi). Berak esaten zidan moduan, *poliki-poliki dastatzeko, gazta zahar bat dastatu behar den bezala, gutxinaka jenez.* Ba, bai Jon, gutxinaka ari naiz irakurtzen, dastatzen, eta orain esku artean hartzen dudanean liburua zurekin pentsatzen jartzen naiz. Gogora datorkit maiatzaren leian, Donostian zeundenean ingresatuta, eta Malen eta biok bisita egitera joan ginenean burua martxan jarri genuela berriro proiektuekin. Kontatu nizun Donosti Ereskirekin Oñatiko gregorianoaren inguruan zenbat material bildua genuen, eta horra zure ekarpena: *Oñatiko gregorianoaren (Arantzazu, Parrokia, Bidaurreta, Santa Ana) mostra bat aukeratu eta grabatu, eta jarri CDaren izenburua, In memoriam Iñaki Beristain.* Ez dakit burutuko dugun proiektu hori, baina behar bada beste bat ere landu beharko dugu: *In memoriam Jon Rekarte* izenburupean.

Seguru musikari asko prest egongo direla horrelako zerbait burutzeko.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez Jon, eta *Agur eta Egun Handira arte!*

Xabier Ugarte (musikaria), 2019-05-13
Oñatitik “Aita Madinaren Liburuzaina”

Mikel Bordari erantzuna

Apirilean Karela kiroldegiari erreferentzia egiten zion idatzia argitaratu zen aldizkari honetan. Bertan, okerrak diren baieztapen ugari egin ziren eta beharrezkoa ikusten dugu erantzun bat ematea.

Lehenik eta behin, Donostiako kirol txartelarekin konparatzen zaigu. Komenigarria da azaltzea BPXport-ek kudeatzen dituela Donostiako kiroldegietako kirol ekintzak (Fortuna eta Bera Berarenak izan ezik) eta beraz, informazio zuzena dugula atal honetan. Argitze aldera:

1. Donostiako Kirol Patronatuko kiroldegietan ez dago doako jarduerarik. Ikastaroetan parte hartzeko, aparteko kuota bat ordaindu behar da.

2. Karelaren abonatu kuotarekin igerilekua, fitness aretoa, tatamia, sauna eta rokodromoa erabil daitezke dohainik. Gainera, kuota berdinarekin barnean Xpress ikastaroak eta jarduera bereziak daude, kirol aholkularitzarekin batera.

3. Donostiako kirol txartelaren prezioa euro ehunenetan zehazten den bitartean, Orioko abonatu kuota 25€ direla baieztatzen da, berez 24€ direnean. Biribilketak egiteko modubitxia...

4. Kontrakoa esan arren, Karelaren kuota murriztuak daude ondorengo bazkide motentzat: ikasleak, pentsionistak, langabetuak, ezinduak, guraso bananduak, +65 urte eta umezurtzak.

5. Oro har padel alokairuak kuotatik kanpo geratu ohi dira, konparatzen zaigun Donostiako kirol instalakuntzetan bezala.

Plantatzeko moduan ados ez egon arren, kalitatearen atalean egiten diren erreferentziak errespetatzen ditugu. Instalakuntza guztiek izaten dituzte arazoak (batez ere urteak bete ahala) eta Karela ez da salbuespena. Gure baliabide eta esfortzu guztiak jartzen ditugu arazoak konpondu eta ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko.

Espazioaren inguruan, txikia

geratu dela azpimarratzen da. Zentzu honetan gauza gutxi egin dezakegu, instalakuntza berri bat eraikitzea ez bada erantzuna. Kontutan izan erabiltzaile asko eta anitzak dauela eta bakoitzak, erabiltzen dituen zerbitzuetan espazio gehiago nahi izaten duela beti. Karelaren espazioaren errealitatea eta ezaugarriak kontutan izanik, 2014tik egin den banaketa arrazoigarri eta egokiena dela uste dugu.

Bestalde, ordutegiaren kasuan, sarritan azaldu den bezala, ez da BPXport-en erabakia.

Kudeaketa baldintza batzuk ditugu eta horiek betetzeaz arduratzen gara.

Udako itxiera teknikoa berriz, ezinbestekoa da Osasun Sailak 32/2003 dekretuari jarraituz eskatzen dituen baldintzak betetzeko. Legea betetzeaz ari gara eta ez enpresak apeta hutsez egiten duen zerbaitetaz. Kalitatea eskatzen den bezala, bidezkoa eta ulerkorra iruditzen zaigu kalitate hori bermatuko duen lanak egin ahal izateko urtean bi asteko itxiera egitea.

Erabiltzaileen iritziak jakiteko inkestak erabiltzen ditugu eta hauek guztiak hartzen dira kontutan. Ditugun baliabide eta aukeren baitan erantzuten dugu, beti ere ikuspegi orokorraren hobebharrez eta ez banakakoek eskatzen dutenari soilik erantzuteko.

Amaitzeko azken hausnarketa egin nahi genuke. Zerbitzu publiko bat eskaintzen dugu eta ondorioz, kiroltasunez onartzen ditugu kritika guztiak, hobetzen laguntzen digutelako. Hemendik aurrera ere kritikak jasotzen jarraitzea espero dugu, negatiboak

•Karela Kiroldegia

Hauteskunde osteko eskerrak

2019ko Udal hauteskundean partaidetza handia izan da eta hori beti da zoriontzekoa. Baina eguneroko gaietan parte hartzerako

jauzia oraindik ere sekulakoa da eta lan handia daukagu egiteko denon artean.

Bipolaritatea, askotan esan dena zein kaltegarria den estatu mailan, gurera ere etorri da eta eragina jasan dugu, beste herri askotako plataformak bezala.

Zoriondu EHBildu garaile izan delako eta EAJ eta PSE aurreko emaitzak hobetu dituztelako. Orain taldekoak ez dira hain onak izan, baina hala eta guztiz ere, guri bozkatu digutenei esan hor izango garelako Udaletxean lan egiten.

Mila esker lanean jarraitzeko aukera eman diguten gure herrikideei. Beraien bozkari eta konfiantzari esker, hor izango gara.

•Orain taldea

JAIOTAKOAK

- Ander Despaigne Ondarra, apirilaren 3an.
- Ander Maiza Echezarreta, apirilaren 23an.
- Manex Manterola Mateos, apirilaren 25ean.
- Unai Piña Lizaso, maiatzaren 1ean.

EZKONDUTAKOAK

- Jon Arregui Peman eta Irene Alza Elorza, matxoaren 23an.
- Jose Yansen Otorra Macias eta Margy Katherine Toledo Valencia, apirilaren 7an.
- Mikel Gorostidi Pulgar eta Tanit Perez de Leceta Gonzalez, maiatzaren 4an.
- Jon Lerchundi Irure eta Saio Etxebarria Txapartegi, maiatzaren 11an.
- Ander Zaldua Arregui eta Olaia Manterola Ibarra, maiatzaren 18an.

HILDAKOAK

- Gumer Arbesu Cimadevilla, Orion, maiatzaren 5ean, 84 urte.
- Mari Karmen Mitxelena Azkue, Orion, maiatzaren 11an, 83 urte.
- Manuel Mari Aldalur Orbegozo, Aian, maiatzaren 10ean, 81 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



Herritarrak goizean goiz hasi ziren botoa ematen. KARKARA

Ajea

“Bi hauteskunde aldien artean, oriotar eta aiarren bizitzak aurrera segitu du.”



Oriokok azken partidako berdinketari esker mailari eutsi dio. KARKARA

Hauteskunde biharamunarekin sartu ginen maiatzean, eta hauteskunde biharamunarekin hasi dugu ekaina. Aspaldian ez zen horrelakorik gertatu, Orion 12 hauteskunde-mahai osatu behar izan dira, Aian 4; bosna gutun azal aukeratu behar izan ditugu denbora gutxian, eta milaka boto kontatu mahaietako presidente, bokal, ikuskatzaile eta apoderatuek. Politikariek, udaleko langileek eta kazetariek ordu estrak sartu behar izan dituzte. Gure herrien onerako izango al da!

Biharamuna, edo beste era batera esanda ajea, Orioko EH Bilduko zenbait jarraitzaileek izango zuten astelehenean Kolon Txikiko argazkiek aditzera ematen zuten bezala. Besteek, aldiz, ez zuten biharamun gozorik izango. Ezin denak irabazi. Hala eta guztiz ere, ikuskizun dago oraindik nor izango den alkate Orion. Ekainaren 15erako erabaki beharra daukate, zirt edo zart.

Bi hauteskunde aldien artean, ordea, oriotar eta aiarren bizitzak aurrera segitu du. Futbol denboraldia amaitu da, arraun taldeak motorra ederki berotzen ari dira, ez oraindik Aiako igoeran parte hartu zuten kotxeak bezain beste, baina ia-ia. Mendi lasterkariak ere hauspoa ondo bete zuten Ikastolak antolatu zuen mendi lasterketan, eta ikasturteko azken txanpan, honezkero, eskoletako ikasle eta irakasleek burua gainezka izango dute.

Udaberria euritsu antzean dabil, akordatu bestela Asentzio Feriako igandean, ea nola segitzen duen. Udara aurretik, ordea, badakizue Balearen egunarekin batera etortzen direla kinto afariak. Argi biharamunarekin!



Aiako igoera lehiatu aurretik autoak kontrola pasatzen. KARKARA

Esperientzia ona izan al da hautesle-mahaian egotea?



“Ziur badirela diru horren beharra dutenak.”

Hauteskunde bezperan bidaia luze bat eduki nuen eta goizean lo askorik egin gabe azaldu nintzen hautesle-mahaira, eguna gogorra joango zelakoan nengoan.

Goizean goiz atek ireki eta jendea azaltzen hasi zenean, mahaikideak egin beharrekoaz akklaratu ginenerako goiza pasa zitzaigun. Eguerdi aldean ere jende pila etorri zenez, segituan pasa zitzaigun denbora. Momenturik gogorrena bazkaldu eta arratsaldeko bostak aldera artekoa izan zen, jende gutxi azaldu zen eta nekatuta ginen ordurako. Kontaketa nahiko azkar egin genuen eta interesgarria izan zen, halere luze joan zen.

Egia esan, uste baino hobeto joan zen eguna. Aurrera begira, ordea, uste dut diru horren truke mahaian egoteko prest dagoen jendeari eman behar zaiola aukera. Ziur badirela herrian diru hori gustura hartuko luketenak, edo beharra dutenak.

Mikel Amilibia



“Aiarrak igandetan ere goiz jaikitzen dira nonbait.”

Aurreko apirilaren 28an, Aiako hauteskunde-mahaian egotea tokatu zitzaidan lehenengo aldiz. Egia esan, ez zen jaso zitekeen deirik pozgarriena izan, ez zen gehien erakartzen ninduen plana ere.

Goizeko 8etarako, Aiako eskolara igo nintzen, mahaia osatu, azalpenak entzun eta prest ginen jada, egunari aurre egiteko. Bozketari hasiera eman eta berehala jende mordoa etorri zen. Aiarrak igandetan ere goiz jaikitzen dira nonbait. Goiza azkar pasatu zitzaidan, nahiko entretenituta egon baikinen.

Arratsaldea goiza baino astunagoa egin zitzaidan, batez ere, bozketaren amaierako bi orduak. Hala ere, denok gazteak eta ezagunak ginen eta kontuak kontaktu eta barre pixka bat egiteko tartea ere hartzen genuen. Eguna luze joan zen, baina tira, azkenean uste baino igande hobeagoa izan zen!

Andrea Zinkunegi



“Esperientziatik bi anekdota atera ditut.”

Bigarren ordezkoa nintzen eta ez nuen uste geratuko nintzenik, gosalduekin ere egin gabe joan nintzen. Jendea sartzen hasi zenean oso urduri jarri nintzen. 11:00ak aldera herri erdia etorri zen batera, zutik egon behar izan nuen ordu luzez. Hala ere, mahaian genuen giro onari esker azkarrago pasa zitzaidan denbora.

Okerrena, eguerdi partea izan zen, ia inor ez zen etorri eta luze egin zitzaigun. Arratsaldea azkarrago joan zen, konturatzerako zortziak ziren eta lasaitua hartu genuen, ez genekien oraindik okerrena falta zela... Boto kontaketa! 23:00ak arte luzatu zen. Gogorra izan zen.

Esperientzia honetatik bi anekdota atera ditut: harrigarria dela zenbat jende dagoen herrian inoiz ikusi ez dudana, eta ez nekiela hurrengo egunean agujeta ikaragarri horiekin esnatuko nintzenik! Kar Kar Kar!

Andoni Uranga

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaia S.L.



Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

edartegia
ANTILLA
jatekidea



Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

arkaitz taberna
... urio

- EGUNEKO MENUA
- OGIFARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin
giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

ARISTERRAZU
jatekidea



Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

Gabon
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogifartekoak

943 83 06 09

ITZALA

*kartetan jokatzeko
aprososa*

tel. 943 83 12 59

PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

KOLON TXIKI
edartegia
jatekidea



Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

kutixi
kafetegia
GOSARI GOXOAK

Aritzaga 9, 20810 Orio
Tf: 943 13 15 17

ETXEKO BEREZITASUNAK
ARRAIN ZOPA
PARRILA

BODEGON SARASUA
ERRETEGIA



Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05

SU KIA
TABERNA · JATEKXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF.: 943 892 129
ABAROMENDI 38, 1. BAXUA


niko
taberna



Karta · Pintxo tradizionalak
Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

ASADOR XIXARIO



Eusko Gudarien Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - ORIO

Zaragueta
Herri Eskola orio



telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkontza.net

Portu
ERRETEGIA

Santio Erreka Auzoa, z/g
943 89 44 34
20809 AIA-ORIO



kazolirik, baserriko oilasko
parrilako errekiak, eguneko menua...

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA



GELATTO

OGI BERRI

943 578 176
Herriko enparantzan

lzoeki naturalak Opilak

Pinuen ondoren, eukaliptoak?



Eneritz Odriozola



Arturo Elozegi

P*inus radiata* da espeziearen izena. Hamarkadatan gure basoetan nagusi izan dena, monolaborantzak eta baso kudeaketa intentsiboak aginduta. Lur-jabe eta egur-zaleek egur txarra denbora motzean eskura izateko aukeratu izan da espeziea. Eta, hala izan dadin, bidelagun izan dute administrazioa Gipuzkoan eta Bizkaian. Administrazioa eta bere eskutik joan diren ikerlariak. Baina bukatu da, antza. *Pinus radiata*-ren urrezko urteak bukatu dira. Urrea banda marroi bihurtu da. Pinudietan gaixotasun.

Gaitza ez da bat- batean etorri. Urteak dira hemen dugula. Eta zer egin du administrazioak? Beste aldera begiratu, edo arazoa ezkutatu.

Pinudi zirenak matarrasa bihurtzen ari zaizkigu, lur aske, luizi iturri. Eta geratzen diren pinudi apurrak salbatzeko, EAE osoa oxido kuprosoz estaliko digute. Jakinda fumigazio horrek ez duela pinudietako gaixotasuna erradikatzen, eta fungizida generikoa izanda, onddo guztiei egiten dietela kalte. Eta, harago joanda, anfibioei, lurreko faunari, ur ekosistema guztiei.

“Pinus radiataren urrezko urteak bukatu dira. Urrea banda marroi bihurtu da. Pinudietan gaixotasun”

Gureak diren beste hainbat zuhaitz espezieri lekua kendu genien aspaldi. Abereentzat belardiak behar genituelako. Beranduago, lur-jabeek negozioa ikusi eta espezie arrotzei bidea ireki zieten, *radiata* kasu. Eta zuhaitz autoktonoen basoak eremu babestuetara mugatu genituen. Denborarekin, garbi geratu da ez dela basoen kudeaketa egokia egin. Eta, oraindik, espezie inbaditzaile bati basoen monopolioa emateko prest gaude. Izan ere, administrazioak pinuari ordezkua topatua dio jada: eukaliptoak.

Badakit asko daukazula esateko gai honetaz, Arturo. EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean urteak daramatzazula eukaliptadien eragina aztertzen. Badakit ere interesetatik eta azpijokoetatik kanpo ibiltzen zarela. Ez al da kezkatzeko egoera?

Arrazoi duzu, Eneritz, egoera kezkarria da. Esan duzun bezala, hogeita bost urtetik gora egin ditugu nire taldean eukaliptadien erreketan duten eragina aztertzen. Motzean esateko: eukaliptoek eragin oso kaltegarria dute erreketako biztanleengan zein ekosistemaren funtzionamenduan.

Errekak guztiz lotuta daude beren arroarekin, eta erreketako bizidunen bazka nagusia ertzetik erortzen zaien orbela da. Eukaliptoak, ordea, orbel gutxi, kalitatez oso txarra eta bizidun askorentzat toxikoa askatzen du. Eta eukaliptopean doazen erreketan askoz xomorrotu gutxiago topatzen ditugu, alegia, arrainen bazka nagusia eskatu egiten da.

Horrez gain, ekosistema osoaren funtzionamendua aldatu egiten da, eta hara iristen den orbela, baita kalitate onekoa iristen bada ere, erabili ezinik geratzen da. Baina txarrena zera da, eukaliptoak hamabi urtetik behin mozten dela. Aipatu dituzun matarrasa horiek hamabi urtetik behin.

“Eukaliptoak, ordea, orbel gutxi, kalitatez oso txarra eta bizidun askorentzat toxikoa askatzen du”

Gure lanez aparte, Euskal Herrian ikusi izan da eukaliptoak kalte handiak egiten dizkiela anfibio eta hegaztiei. Eta kanpotik datozen berriak ez dira hobeak: eukaliptoak ura lurrean sartzea zailtzen du, uholde-arriskua handituz, suteak errazago zabaltzea dakar, eta beste hainbat arazo sortzen ditu ingurumenean.

Pinua gainbehera doan honetan, ongi pentsatu beharko genuke nolako etorkizuna nahi dugun Euskal Herrirako. Administrazioak pentsatu beharko luke, baina baita jende arruntak ere, azkenean bere erabakia baita leku batean zer sartu eta zer ez. Egoera honetara ekarri dituztenei kasu egiten jarraitu behar dute, ala beste zerbait pentsatzen hasiko dira? Azken urteotan Portugal eta Galiziatik iritsi zaizkigun irudi negargarrietatik ez ote dugu ezer ikasi?



Txurrumuskiko kideak eta kide ohiak, 20.urteurrenaren ospakizunean. TXURRUMUSKI

Hezkuntzaren erroak irribarrez ureztatuz

1998. urtean sortu zuten Orioko Txurrumuski Aisialdi Elkartea. Ehundaka haur eta gazteren topagunea izan da ordutik, eta **urtez urte ongarritu dituzte hezkuntza ez-formalaren sustriak**, elkarrekintzaren, jolasaren eta solasaren bidez.

TESTUA: DORLETA AGIRIANO



“Aisialdiaz gain, elkarteak asko eman dio herriari, figura hori beti egon da presente.”

“Ekintzetara egunez egun joaten den boluntario batek eginkizun horretan benetan sinesten duelako jarraitzen du lanean.”

20 urte, lau belaunaldi, dozenaka boluntario eta ehunka haur eta gazte. Hamaika bizipen, hamaika oroitzapen, hamaika sentimendu eta hamaika erronka; eta, batez ere, herrian errotutako proiektu sendo bat. Elementu horiek guztiak dira Txurrunuski Aisialdi Elkarteko kideek beren motxilan sartu eta bizkar gainean eraman dituztenak; edozein talde jardueratara bertaratzean, gainean eta gogoan izan dituztenak, bisera, eguzkitako krema eta hamaiketakoarekin batera. Ingurua eta aldameneko kidea ezagutzeko eta ondo pasatzeko irrikarekin batera. Eta ez da lan makala urtez urte taldean irribarreak marraztea.

Luzea izan da motxila horiek hartuta Txurrunuskikoek egin duten ibilbidea; eguzkipean zein euripean, udan zein neguan. Ugariak izan dira urratu dituzten bide berri eta ez hain berriak, eta ugariak baita bide horien zoruan utzi dituzten oinatzak. Oinatz txikiak, eta ez hain txikiak.

Duela bi hamarkadatik, helmuga garbia markatu du esku artean izan duten iparrorratzak. Hain zuzen, jolasa eta gozamina arma modura hartuta, balio etikoak lantzea, modu kolektiboan; mingaina arma modura baliatuta, euskaraz eta euskaratik jardutea; taldekideak ezagutuz eta zainduz, taldean haztea, heztea eta garatzea, lan boluntarioaren bidez eta elkarlanean.

Jolasa eta solasa

Xabi Ibareguren Txurrunuskiko kide ohiak azaldu duen bezala, Orioko haurren eta gazteen aisialdia *modu ludikoan antolatzea* da elkartearen helduleku nagusia, baina *pertsonen arteko balioak landuz eta indartuz* beti ere. Ibaregurenen iritziz, horretan datza hezkuntza ez-formalaren sustraia, eta lanketa horrek garrantzia berezia hartzen du gazteenekin egiten denean.

Batzuetan ez gara jabetzen jolasaren bidez jorratzen ari garen balioez, ez dugu beti modu kontzientean egiten, dio Ibaregurennek: Jolasen bidez hainbat gai lantzen ditugu, beste modu batera landu ezingo genituzkeenak. Esaterako, etorkinen jolasa delakoa aipatu du taldeko kide ohiak, non haurrek jatorri desberdinetako pertsonen azalean eta errealitatean sartu behar duten, role playing bidez: Ariketak zer pentsatua eta zer hausnartua ematen du, eta jolasaren bidez lortzen dugu hori; haurrek jolasaren bidez ehuntzen dute prozesua. Hala, Ibaregurennek azaldu duenez, elkarbizitza eta elkarrekintza balioak dira ardatz, eta, gainera, gazteek modu naturalean lantzen eta bizitzen dute hori guztia; lagun artean ekintza dibertigarriak egiten eta gozaten, eta horren atzean dagoen proiektua guztiz ikusi edo irudikatu gabe.

Beraz, Ibaregurenen iritziz, ez da erraza elkarteak osatzen duen proiektu osoa lehenengo unetik atzematea; eta are zailagoa da kanpotik begiratzean: *Kanpotik ikusten dena gazte talde bat da, jarduerak eta egonaldiak*



antolatzen dituen, hurrekin txoko batetik bestera joaten dena. Baina hortik harago doa”.

Azalean geratu daitezkeen bizipenetatik urrun, azalean gantzututako bizipen ikusezinak izan daitezkeenak bilatzen dituzte Txurrumuskin, hartu-emaneko harremanak eta ikaspenak jopuntu modura hartuta: *Haur modura asko ikasten da, baina boluntario modura ere bai, taldekideen bidez zein haurren bidez. Norabide guztietan jasotzen eta ematen dugu; etengabe doan eta bueltan datorrizun zerbait da esku artean izaten duguna. Txurrumuskin landutako guztia gurekin dator gero, eta gurekin geratzen da, gaineratu du Iburgurenek.*

20 urte, proiektu bat

Orioko hainbat gaztek 1998. urtean erein zituzten Txurrumuski sortzeko lehen haziak. 2006. urtean egoeraren diagnosis egin zuten aisialdi taldeak eta Orioko Udalak; hala, Gaztelekua sortzeko proiektua jarri zuten martxan. 2007. urtean eraiki zuten egun Ametsa Gaztelekua dena, eta udalak lehiaketa publikora atera zuten gunearen kudeaketa.

Txurrumuski lehiaketara aurkeztu zen, eta elkartearen 10. urteurrenean, 2008. urtean, bere esku geratu zen Gaztelekuaren kudeaketa. 2012. urtean ere lehiaketa publikoa irabazi zuen Txurrumuskik, eta ordutik elkarte arduratzen da kudeaketaz. Ludotekaren funtzionamendua ere bere gain dago.

Egun, 21 boluntarioekin, 2-16 urte bitarteko haur zein gazteei zuzendutako eskaintza zabala antolatzen du Txurrumuskik, adin desberdinetako kideei begira



300

Haur. 1998. urtean sortu zen elkarteak haur eta gaztetxoan aisialdia bete du urte luzez. Gaur egun, uda sasoian antolatzen dituzten udalekuetan 300 bat haur eta gazteren aisialdia hartzen dute bere gain, uztailean zein abuztuan.



osatutako programak eginez.

Esaterako, uda sasoiari, 2-3 urteko haurrentzako Uda Txokoa prestatzen dute; 3-9 urtekoentzat ere udalekuak izaten dira; 12 urtera artekoek Gazte Abenturetan parte hartzeko aukera izaten dute; eta 16 urtera artekoentzat Gaztelekuan izaten dira jarduerak. Hala, une honetan, 300 haur eta gazte ingururen aisialdia hartzen du bere gain Txurrunuskik udan.

Elkarlanaren adreiluak

Dena den, Iburgurenen hitzetan, aisialdiaren munduan egindako lanetik harago doa Txurrunuskiren jarduna, herriko kultur espazio gehienetan eta bestelako eremuetan jarri dituzten adreiluak ekarri baititu gogora: *Txurrunuskik urte luzez parte hartu du festa batzordean, herriko jaietako egitarauan, ikastetxeetako egitasmoetan eta proiektuetan, Olentzeroren etorreran, Errege Magoen kabalgatan eta abar. Aisialdiaz gain, elkarteak asko eman dio herriari, figura hori beti egon da presente*, gehitu du.

Hala, aisialdiarekin zein kulturarekin lotutako eremuetan *modu batean edo bestean* izandako parte hartzea aintzat hartuta, herritarrek lan horri *dagokion balioa ematea* eskatu du Iburgurenek: *Hori zor diogu Txurrunuskiri*.

Gainera, boluntarioek osatutako talde bat izateak balio erantsia ematen diola nabarmendu du elkarteko kide ohiak: *Benetan gustatuko litzaidake Txurrunuskiren jarduna herritarrengana iristea, eta beraiek ikustea eta hausnartzea taldekideek modu boluntarioan egiten dutela herriari begirako lan hori guztia. Garrantzitsua iruditzen zait funtzionatzeko modu horren inguruko kontzientzia hartzea*.

Gogoko tokian ez omen da aldaparik. *Begiraleak atsegin handiz bertaritzen dira Txurrunuskiren antolatutako edozein jardura edo irteera egitera, baina azpimarratzekoa da modu boluntarioan egiten dutela berez lan profesional bat dena, dio Iburgurenek: Txurrunuskiren ekintzetara egunez egun joaten den boluntario batek, eginkizun horretan benetan sinesten duelako jarraitzen du lanean. Beraz, mundu eta lan*



egiteko modu ikuskera horren *potentzialitatea* mahai gainera atera du Iburgurenek.

Zikloen hasierak eta jarraipenak

20 urte, lau belaunaldi, dozenaka boluntario eta ehunka haur eta gazte. Iburgurenek haurra zenean izan zuen lehen harremana Txurrunuskirekin, antolatutako ekintza eta jardueretan parte hartuz. Antolatzaile izatera pasatu zen aurrerago, boluntario lanetan murgildu baitzen gaztetan. Elkarteko lehendakari ere izan zen.

Egun, kanpotik bizi du Txurrunuski izeneko zurrumbiloa. Zikloen hasierak, jarraipenak, amaierak edota aldaketak barnebiltzen eta irensten dituen zurrumbiloa.

Denboran aurrera doan elkarte bat da Txurrunuski, baina bertatik pasatzen den jendea pasatzen dela ere, proiektuarekin aurrera egiten duena. Taldearen oinarriak bere horretan jarraitzen du, eta proiektua eta helburuak mantendu egiten dira, adierazi du Iburgurenek: Hori da Txurrunuskiren berezitasuna eta daukan altxorra.



emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine.

%5eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio
943 134 889  argine/jantziak



Tel. 943 83 31 03

ITZIAR KIROLAK

Reebok  





www.fontaneria-fontana.com

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoan instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

MENDIZABAL
AROTEGIA
*Neurriko armairuak
eta egurlanak*

943 831 175 Altxerri bidea
645 708 491 Beti-Alai etxea
mendi@arotzi.net 20810 Aia-Orio

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

fontana
iturgintza

Plaza Endaia N°1, 20810 - Orio
fontana-ju@hotmail.es
943 539 888 • 661 262 828

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK

 zerbiztu teknikoak
24 ordu

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00



ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



ELEKTRIZITATEA
Ander Exposito

943 831 774
600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com



IGLESIAS
SARRILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerrajerros@yahoo.es
20810 ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

Katu
MORIA
albaitaritza klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia **668 89 11 29**

www.katuhoria.com

BODEGAS

Gailur

01307 BAÑOS de EBRO
Tel/Fax 945 60 91 58
www.bodegagailur.com
Arabar Errioxa

ZUDUGARAI



Getariako Txakolina

Tel. 943 83 03 86
Fax 943 83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net
www.txakolizudugarai.com

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



Lasarte-Oriako oriotarrak Hendaiatik (IV)



Meltxor Artetxe

Herriko eta inguruko hainbat gazte indartsu bildu eta haiek arraunlari bilakatzeko lanari ekin zioten. Eta baita lortu ere!

17an Kontxako garaipen handiak sortarazi zizkidan poza eta harrotasuna azaldu nituen KARKARAN eta oraingoan ere estropadekin zerikusia duen gaia dakarkit gure aldizkarira, neure txikitako oroitzapenetan oinarrituz.

Izan ere, Lasarte-Michelin kirol elkarteko traineruaren Kontxako lehen garaipenaren 50. urteurrena ospatuko da aurten.

Orioko ontziak 1964. urtean lortua zuen azken bandera Donostian, Klaudio Etxeberria *Gorria* patroiz zelarik, eta harrezkeroz traineruen lehiatik urrunduta edo *galduta* zegoela zirudien. Bagenekien gogor entrenatzen eta emaitza izugarriak lortzen ari zirela banku mugikorrean Albert Mainella entrenatzaile frantziarraren eskutik. Traineruaren osaketaren inguruan liskarrak eta iskanbilak izan zirela ere entzuten genuen eta, haserre horien ondorioz, arraunlari talde batek -tartean Jose Luis Korta bera- herriko trainerua utzi eta Lasarte-Orian osatu zuten kuadrilla berria (agian zaila egiten zaigu Korta haserre irudikatzea, ezta?).

Herriko eta inguruko hainbat gazte indartsu bildu eta haiek arraunlari bilakatzeko lanari ekin zioten. Eta baita lortu ere! Sekulako trainerua osatzea lortu zuten eta denbora gutxian goi mailara heldu ziren. Michelin enpresak ere, diru laguntza eta horniduraz gain, erraztasunak ematen zizkien arraunlari askori entrenatzeko eta lehiatzeko garaian, ordutegi, baimen eta abarren aldetik...

Hondarribiaren urrezko garaia zen. 1965ean hasita, jarraian lau garaipen lortu zituzten Kontxako estropadetan eta Lasarte-Michelingoa izan zen, hain zuzen ere, berdeen nagusitasuna eten zuen ontzia 1969an, Klaudio Etxeberriaren gidaritzapean.

**Hurrengo zenbakian jarraituko du...*



Jon Garete

Telebista: oro ez da urre

Badira hiru urte telebistan lanean hasi nintzela. Lehendabizi *Gailurra* saioan, gero *Itsasontzi baten* eta azken bi urtetan *Gure kasan*. Orduz geroztik, kalkulatu dut eta 300-350 gonbidatu ingururekin egongo nintzen.

Orokorrean ez dut inorekin arazorik izan eta adeitsu portatu dira, baina beti egoten dira salbuespenak. Badaude jatorrak diruditenak, baina gero pertsonalki harro hutsak direnak.

Hauen artean hiru talde bereziko nituzke: Batetik, gazteak eta arrakasta lortu berri dutenak; segituan konturatuko dira fama joan eta etorri egiten dela. Bestetik, bere garaian arrakasta lortu zutenak eta oraindik norbait direla pentsatzen dutenak; nahiz eta inor ez den beraiekin gogoratzen. Eta azkenik, helduak eta urte luzez arrakastaren aparretan dabilzanak. Jainkoak sentitzen direnak!

Azken hauek dira okerrenak. Niri, handiuste aurpegiarekin esan izan didate: *Gazte hau al da programako gidoilaria?* Beste batzuei, zerbait azaltzen hasi eta erretzera joaten dira. Beren atzetik ibiliko diren morroiak gustatzen zaizkie. Edota badaude beren liburua irakurri ez dudala esan eta haserretzen direnak...

Honekin esan nahi dudana da, askori kalte egiten diola arrakastak. Beraz, ez fidatu telebistan erakusten den guztiarekin. Oro ez da urre!



Oriok amu ederrak ditu bisitariak erakartzeko: hondartza, errioa, arrauna...

**Oroimenaren
kutxa**

Kantabriako presidentea Orion

Kantabriako presidente Miguel Angel Revillak apirilean telebistan esan zuen Orion egon berria zela. *Alabarekin jatetxe batean izan nintzen bazkaltzen. Herriko jendea hurbildu zitzaidan, eta besarkatu. Gauzak asko aldatu dira; lehen, beste batean, hanka egin behar izan genuen Oriotik.* Hori esan zuen, ETArena bukatu denetik gauzak zenbat aldatu diren eta euskaldunak zer jatorrak garen adierazteko.

Revillari gustatu egiten zaio bere ahotsa entzutea, eta hitz eta pitz jarduten da. 500 argazki egin omen zituen Orioko Itsaso jatetxean, jendearekin.

Denok dakigu 500 argazki esatea gehitxo dela; baina oriotarrok, gainera, badakigu Orion ez dagoela Itsaso jatetxerik. Adibide egokia da jakiteko entzundakoak, eta irakurritakoak ere, galbahe kritikotik pasatzea komeni dela beti.

Ez dira asko, kanpotik etorrita, munduari Orio eta oriotarren berri eman diotenak, baina batzuk bai, seguru asko Revilla baino fidagarriagoak. Antonio Zabala jesuitak Auspoako hiru liburutan eman zigun Orioko bertsolarien berri: Errikotxia, Gaztelu, Txanka, Saikola, Itxaspe... Ana Maria Etxaidek *El castellano en el habla de Orio* liburuan azaldu zigun 1950eko oriotarrek erdaraz nola hitz egiten zuten. Loli Erkizia, Elena Sierra eta Mari Carmen Urbizuk, 1970ean, *Orio entre la ría y el mar* liburuxka idatzi zuten: historia, jaiak, tradizioak... Historialariak ere izan ditugu: Marta Truchuelo eta Antxon Agirrek liburu bana idatzi zuten: *Orio historian zehar* 2003an Martak eta *Orio oro hori* 2011n Antxonek. Donostiako Untzi Museoaren Itsas Memoria aldizkariaren zortzi aleetan, Orioko itsas ondarearen berri (arrantzaleak, ontziolak...) eman dute hainbat adituk: Lourdes Odriozola, Xabier Alberdi, Jose Mari Unsain, Soko Romano...

Wilhelm Von Humboldt zientzialari erromantiko

alemana ere izan zen Orion, 1801ean, eta hitz gutxi batzuk utzi zituen gure herriaz, *1801, euskaldunen herrian barrena* liburuan. Zioenez, Oriok 100 etxe inguru zituen, batzuk eder askoak, eliza, udaletxea eta frontoiaz gain. Etxeetako armarriak eta haietan tailatutako irudiak goraiatu zituen: arranoak, lehoiak, gizon basatiak...

Selma Huxley euskal balea-arrantzaleen ikertzaile kanadarrak hauxe zioen, 1993an, Goiko Kaleko etxe zahar batzuk botatzeak eragin zion mina adierazteko: *Orain 20 urte zirrara sentitu nuen Orioko etxe historiko gehienak zutik ikusita. Azken hiru urteotan hiru bota dituzte, XVI. mendeko itsas gizonenak: armarriak, leiho gotikoak, grabatuak (arpoilaria, txalupa eta balea)... Egungo oriotarrek zergatik ez dute zaintzen gune historikoa?*

Literaturan ere badira Orioren aipamenak. Adibidez, Gabriel Celaya poeta hernaniarrak 1968an plazaratutako *Canto en lo mío* liburuko olerkia: *Orio sencillo y difícil, todo está por inventar. En tu playa he descubierto que el mar -¡amor!- es la mar.* Kirol kazetari batek hauxe utzi zigun 1950 aldean: *Oriotarrek arraun ez, hegan egiten dute olatuen gainean, mirotzak dira (aguiluchos).*

Eusko Ikaskuntzak 1927an Mathilde Van Eys-en oroitzapenak eman zituen nazioarteko aldizkarian: *Souvenirs d'un voyage dans le Pays Basque en 1866.* XIX. mendeko hemengo bizimodua ezagutzeko argibide politak eskaintzen ditu. Bada bat Orioren aipamena egiten duena: *Zarauzko ostatutik paseo luze bat egin dugu Orioko mendiraino. Saltinbankiak ikusi ditugu. Euskaldun batek inoiz ezingo luke lanbide hori izan.* Horixe gogorarazi zigun Andoni Egañak Berrian (2018-12-12). Van Eys andreak Revillaren antzeko txerpolari kanpotar bat topatu zuen nonbait egun hartan Orio aldean, hitz eta pitz hura ere.

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

PERTSIANAK
AKO M
AZ
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

Seguros Bilbao
Telf: 943 111 600
688 714 869
Endaia Enparantza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa) e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com
Santi Barranco
Orioko ordezkaria

azkue
azkue
Tf: 943 130 438
azkue

Orioko Herririkastola
Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

PATXI OLIDEN
HERATEGIA
PATXI OLIDEN
URDRITEGIA
Hemengo haragia.
Etxeo produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, krocketak...
Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

TXUKUN LORAZANTZA, S.L.
Tel. 660 332 756 · 679 428 851
...
Lorezaintza
Mendiko lanak
Indusketak
Itxiturak
txukunlorazantza@hotmail.com

egin zaitez laguntzaile
Karkara
karkara
Karkara

EGARMENDIA
Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak
info@egarmendia.com
Tf:943 834 466-Fax: 943 132 941
Ibai Ondo, 1 - 20810 Orio

KORTABERRI arotz lanak
Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)
kortaberri.arotza@hotmail.com
665 70 33 47

Ile apaindegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

azkue
karrozeria
Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

Kukuarri astea egunez egun

TESTUA: INTZA UNANUE

ARGAZKIAK: KARKARA, TALAI MENDI, KORO SAIZAR

Usadioari jarraituz, aurten ere maiatzeko azken igandean ospatzen den Kukuarri eguna aitzakia hartuta, Talai Mendi elkarteak Kukuarri astearen 6. edizioa antolatu du. Herritarrek hainbat ekimenez gozatzeko aukera izan dute maiatzaren 21etik, 26ra bitartean.

Asteari hasiera emateko, maiatzaren 21ean, asteartearekin, Motondo ingurua garbitzeko plana antolatu zuen elkarteak. 17:00etan abiatu zen dozena bat boluntario plazatik, eremua garbitzera, batzuk oinez besteak bizikletan. Talai Mendik eskularruak eta poltsak banatu zituen eta parte hartzaileek inguruan aurkitu zuten zaborra bildu zuten: *Gehienak ontzi arinak izan ziren, baina 3 pixoihal eta besaulki bat ere jaso genituen gure harridurarako*, azaldu dute Talai Mendi elkarteak kideek. Jarduera horrekin Talai Mendik kontzientzia sortu nahi du oriotarren artean: *Azaldu nahi dugu mendira edo edozein natur guneetara joaten garenean zaborra ez dela lurrera bota behar, natura zaindu behar dugula, alegia!*



Ospakizunarekin jarraituz, maiatzaren 22an, asteazkenarekin, Slacklinean ibiltzeko aukera jarri zuen

Talai Mendik plazan. Haur eta gazte ugari bildu ziren kirola probatzeko asmoz. Helduak ez ziren ausartu ordea!



Hurrengo egunean, ostegunez, orientazio proba izan zen GOT taldearen laguntzarekin. Bakarka, familian edo taldean parte hartzeko aukera bazen ere, hurbildu ziren haur eta gaztetxoek taldeetan banatuta hartu zuten parte, gurasoak arduradun zituztela. 21 taldek eman zuten izena guztira, 100 bat ume elkartu ziren. Aurtengo saioan, 45 minutu izan zituzten herrian zehar balizak aurkitu eta ahalik eta puntuazio gehiena eskuratzeko. *Olaskoagatarrak* izan ziren 21 puntu lortu zituztenak, atzetik 20 punturekin beste hiru talde lehia: *Orioko*





bostak, Oinez-oinez eta Bost onenak. Merienda goxoaren ondoren, oparien zozketa izan zen.

Ospakizun astea aurrera, maiatzaren 24an ostiralarekin *Menditour* film-emanaldia eskaini zuten Kultur Etxean. Herritarrek Bilbao Mendi Film Jaialdiko hiru lan ikusteko aukera izan zuten, 21:30etik aurrera. Wallmapu, Viacruxis eta This mountain life ikus-entzunezkoak eskaini zituzten hitzorduan. Jatorrizko hizkuntzan hirurak, azpidatziekin. Sarrerak, dohan ziren, baina aurretik eskuratu beharrekoak, denbora gutxian agortu ziren den-denak. *Menditour*-ek barnebiltzen dituen lan guztiek dute ardatz mendia; hala nola mendizaletasuna, eskalada, eskia edota parapentea. Zinemaldiko kideen arabera, *maina eta aurrekontu indartsuekin* egindako lanak dira, irudiei, gidoiei zein argazkigintzari dagokienez.

Larunbatean, hilaren 25ean, Kukuarri astearen amaituz, arratsaldeko 16:00etan hasita 19:30era bitartean herriko adin guztietako haurrek Kiroldegiko rokodromoa erabiltzeko aukera izan zuten, baita elizako paretan eskalatzeko eta yumareatzekoa ere. Gaztetxo ugari bildu zituen ekintzak, gustora ibili ziren paretan gora eta behera bertaratu zirenak.



Aste osoan motorrak berotu eta gero, azkenean, maiatzaren 26an, igandearrekin, Kukuarri eguna ospatu zen. Urtero bezala, mendira igoera antolatu zuten Talai Mendi elkarteak. Eguraldia lagun izan ez bazen ere, herritarrek animatu ziren gurutzeraino igotzen.

Goizeko 10:00etan izan zen irteera plazatik, gora igotzean euria eta behe-lainoa izan ziren lagun. Urtero bezala Joxemari sakristauak otoitzaldia egin zuen. Ondoren, Talai Mendi elkarteko kideek hamaiketako eskaini zieten bertaratu zirenei: salda beroa eta txistor pintxoak.



LANDARE BEREZIEN AZOKA 2019

Goizean goiz hasita, jende ugari gertuaru zen apirilaren 27an eta 28an opskatutako Aiako XVII. Landare Berezien azokara. Autobusak joan eta etorrian ibili ziren sarri-sarri. Udaberriko koloreek hartu zuten Iturranan parketxea 50 landare-mintegik eraman zituzten landareekin.





Orioko 9. Mendi Lasterketa

Maiatzaren 11an jokatu zuten Orioko 9. Mendi Lasterketa hirurehun korrikalari inguruk. Lehen aldiz bi ibilbide izan zituen mendiko eta itsasoko bistak uztartzen dituen lasterketak. Ibai Makazaga oriotarra eta Maialen Gurrutxaga amezketarra izan ziren lehenak helmuga zeharkatzen 22 kilometroko ibilbidean. 11 kilometroko ibilbidean, berriz, Kamel Ziani oriotarra eta Leire Baraibar zumaiarra izan ziren irabazleak.





10ko
n di
rketa



Desatascos

24 ORDU
 688 886 536
 desatascos@desatascoslaster.com
 www.desatascoslaster.com

Hodi-libraketa
 Garbiketak presio handiko urarekin
 Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa
 Hodien, isurbideen eta estoldieraren ikuskatzea, kamerarekin
 Uholde urak ateratzea
 Ezkutuko kutxatilen detekzioa


Sagar erreka 21-A • 20590 Sorraluze
 Abaramendi bajo 3 • 20810 Orío
 Tel.: 943 751 431

libe
 dietetika
 elikadura aholkularitza

OPDO ELIKATZ BIZI

eusko gudariak 35 :: ORIO
 [sarrera Arrantzale kaletik]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
 libegarmendia@gmail.com

mauka

 PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL.F - 943 572 083
 FAX - 943 571 190
 i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
 ABESLARI, 1
 20810 ORIO

KAIJOA

Arropa
 Oinetakoak
 Osagarriak

Arrantzale kalea, 8
 T 943 244 686
 ORIO (Gipuzkoa)

Zigordia kalea, 18
 (S. Frantzisko kalearekiko izkina)
 T 943 021 834
 ZARAUZ (Gipuzkoa)

Eribera kalea, 10
 T 943 543 323
 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Foru ibilbidea, 2
 T 943 252 375
 AZPEITIA (Gipuzkoa)

www.kaioa.es

urbide
 iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4
 20800 | Zarautz
 943 890 069
 urbideiturginak@gmail.com
 www.urbide.es

ORIA
 hortz klinika

Oria Hortz Klinikak **ORTODONTZIA**
 zerbitzu berria jarri du martxan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela
 jakinda, hartu aurre etorkizunean sor
 daitezkeen arazoel.

Arrantzale kalea, 63 behea
 20810 ORIO
 Tel.: 943 83 36 45

UDA SASOIAN 2019
 MILA AUKERA
 UDARA HONTAN!
 Izen emate epea irekia

KARELA

www.podologia-oinarri.com

943 575 361
 Arrantzale 63 · 20810 · Orío

oinarri
 PODOLOGIA ZENTROA

Oreka
 fisioterapia
 943 13 35 37
 Eusko Gudari, 54

Ekografia muskulo-eskeletikoa
 Eskuzko terapia · Talka-uhinak
 Masaje terapeutikoa · Osteopatia

EGIN ZATEZ LAGUNTZAILE

Karkara
 karkara.eus

Zarautz
 Hileta Zerbitzuak

Harrespil
 Hilerri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxes: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



Herritarrak bozka emateko txanda iritsi zain. KARKARA

Lehenengo aldiz, EH Bildu nagusi Orion

Egoera errotik aldatu da Orion, historian lehen aldiz Eh Bilduk irabazi ditu udal hauteskundeak. Aian, indarrean zegoen EAJk indar gutxiago du orain, zinegotzi bat gutxiago izango baitu.

AIORA LARRAÑAGA ETA INTZA UNANUE

Maiatzaren 26an, igandearekin Europako parlamentuko, udalerako eta Batzar Orokorretarako hauteskundeak izan ziren. Goizeko 09:00etan ireki zituzten Aia eta Orioko hauteslekuetako ateak, eta herritarrak pixkanaka gerturatzen joan ziren egunean zehar, botoa emateko.

Hiru koloretako hautetsontziekin topatu ziren boto emaileak: urdina Europako parlamenturako botoa emateko, zuria udal hauteskundeetarako eta izokin kolorekoa Batzar Orokorretarako.

Udal hauteskundeetako lehen parte hartze datuak eguerdikiko 14:00etan iritsi ziren KARKARako erredakziora, Espainiako Barne Ministerioak jakinarazita. Datuen arabera, goizeko 09:00etatik 14:00etara bitartean, Urola Kostako erroldaren %42,19ak eman zuen botoa. 2015eko udal hauteskundeetako lehen parte hartze datuekin alderatuta, oro har, gora egin zuen

parte hartzeak eskualdeko herri guztietan, Aian eta Orion izan ezik. Izan ere, Aian 2015ean %44,16koa izan zen parte hartzea eta aurtengoan %39,58koa, ia bost puntu egin zuen behera. Orion, berriz, 2015ean erroldaren %42,44 hartu zuen parte eguerdira bitartean, eta aurtan %41,77, ia puntu bateko jaitsiera.

Bi herrietako alkategaiak goiztiarrak izan ziren botoa ematen. Aiako Iñaki Telleriak, EH Bilduko zerrendaburuak eta Nekane Arrizabalagak, EAJko alkategaiak goizeko 11:00etarako emana zuten beren botoa. Orion, Jose Angel Iparragirre, Orain taldeko alkategaia izan zen lehena bozkatzen, 11:00etan. Jarraian Anuska Esnalek, EH Bilduko zerrendaburuak sartu zituen botoak kutxan eta azkena Lourdes Salsamendi, EAJko alkategaia izan zen. 12:00etarako denek emana zuten bozka.



Jose Anjel Iparragirre, Orain taldeko alkategaia. KARKARA



Anuska Esnal, EH Bilduko alkategaia. KARKARA



Lourdes Salsamendi, EAJko alkategaia. KARKARA

ORIO

Goizean 09:00etan ireki zituzten hauteslekuak. Bina mahai jarri zituzten ohikoa den bezala Kultur Etxean, Udaletxean eta Herri Ikastolan. Ireki bezain pronto hasi ziren herritarrak gerturatzen.

Goizaldean 11:00ak aldera joan ziren herritar gehienak botoa emateko eskubidea baliatzera. Eguerdiko aldera ibili zen jende gutxiengoa, eta arratsaldean berriz areagotu egin zen jarioa. Hala ere, inongo momentuan ez zen izugarritzko ilararik sortu, normaltasun osoz joan zen eguna.

Arratsaldeko 20:00etan itxi zituzten ateak eta kontaktari ekin zioten mahai-kideek, bertan zeuden alderdi politikoetako apoderatuak ere, taldekideei ahal bezain pronto emaitzen berri emateko. Ezer baino lehen, posta bidezko botaketak ontzietan sartu zituzten eta Europako parlamenturako kontaktekin hasi ziren, arazorik gabe. Bigarrenik, udal hauteskunde txanda izan zen, eta azkenik Batzar Orokoretako hauteskundeena. Orokorrean, azkar joan zen kontaketa, 21:00etarako, jada, lehen datuak iristen hasi ziren KARKARAko erredakziora.

Eguerdiko 14:00etan Orioko erroldaren ehuneko %41,77ak emana zuen botoa, 2015ean baino ia puntu bat gutxiago. Arratsaldeko 18:00etarako, berriz, %56,26koa zen parte hartzea, 2015ean %55,73 izan zen. Herritarrek 20:00etara bitartean izan zuten botoa emateko aukera. Guztira, botoa emateko eskubidea zuten oriotarren %70.18ak hartu zuen parte udal hauteskundeetan, % 29,82ko abstentzioa egon zen beraz, zehazki, 1313 pertsona. 2015etik %3,89 handitu zen parte hartzea.


Ezusteko emaitzak alderdientzat

EH Bilduk lortu ditu zinegotzi gehien Orion, 1256 botorekin. EAJ-k 1151 boto jaso ditu. PSE-EEK berriz 312 boto lortu ditu, eta Orainek 277. Boto zuriak 57 izan dira, % 1,86 eta, baliogabeak, 36, % 1,17.

2015eko udal hauteskundeetako datuekin alderatuta, aldaketa nabarmena izan da boto banaketan. EAJk 2015ean 1151 boto jaso zituen, 18 botoko gorakada jaso du aurten, bost zinegotzi lortu dituzte, iaz baino bat gutxiago: Lourdes Salsamendi, Andoni Torres, Jon Basurko, Amaia Gozategi eta Jose Javier Gomez de Segura. EH Bilduk, berriz, 266 bozka gehiago lortu ditu 2015ean baino, 890 jaso baitzituen, sei eserleku eskuratu ditu alderdiak Udalean, iaz baino bi gehiago: Anuska Esnal, Ainara Munduate, Xabier Ibarburen, Beñat Solaberrieta, Bakartxo Oriden eta Bittor Andres. PSOEek ere igoera nabaria izan du aurten, 2015eko hauteskundeetan 236 boto eskuratu zituen, aurten, 76 gehiago, Ana Priede zinegotzi bakarrarekin jarraituko dute aurten ere. Boto kopuruan jaitsiera nabaria jasan duen talde bakarra Orain taldea izan da, 2015ean 433 bozka eskuratu baitzituen, aurten, 156 galdu ditu eta zinegotzi bakarra izango du Udalean, Jose Angel Iparragirre.

Udal hauteskundeak 2019 – Orio

Boto kopurua

Batzar Nagusietarako
hauteskundeak 2019

Boto kopurua

EH Bildu	1.227
EAJ	1.341
PSE-EE	263
Podemos	145
PP	34



Anuska Esnal, EH Bilduko alkategaia: *Egia esan ez genuen hau espero, pozik ginen egindako lanarekin baina ez genuen uste emaitza hauek lortuko genituenik. Oso eskertuak gaude herriari, taldean lan handia egin dugu eta oso pozik gaude. Bihartik aurrera beste ibilbide bat hasiko da EH Bildurentzat eta askotan aipatu dugun bezala guk txikitik egingo dugu lana, elkarrekin eta zubiak eraikiz. Lan asko egiteko gogoz gaude.*



Lourdes Salsamendi, EAJko alkategaia: *2015ean baino boto gehiago jaso ditugu eta Europa eta Aldundian irabazi egin dugu Orion ere. Ezin izan dugu alkatetza lortu, argi dago 4 urte hauetan egindako lana ez dela nahikoa izan, eta herriak aldaketa bozkatu du. Talde berri bat sortu eta lan asko egin dugu Oriotarrek programa hobereana izan dezaten. Denon izenean eskertzen dizuegu gudan jarri duzuen konfiantza. Gure aldetik zoriondu Orioko EH Bilduri eta Anuskari, Oriotar guztiek jakin dezaten ilusio eta konpromiso berdinarekin jarraituko dugula; Oriyotik, Oriyotarrentzat eta Oriyotarrekin lan eginaz, gure herria maite dugulako. Aupa Orió!*




Ana Priede, PSOEko alkategaia: *Garbi geratu da, beste behin, Orioko herriak ez duela nahi gehiago absolutorik. Beste behin, legealdia gehiengorik gabekoa izateak esan nahi du negoziatu, adostu eta lana egin beharko dela. Hori uste dut Orioko herriari gerta dakioken gauzarik onena dela, azken legealdi hau dugu adibiderik garbiena. Gure emaitzen inguruan, nigan konfiantza jarri duten pertsonak eskertu nahi nituzke berriz ere. Aurrekoetan baino zenbait boto gehiago eskuratu ditut; hurrengo lau urtetan, lehen bezalaxe, lanean jarraitzera.*



Jose Anjel Iparragirre, Orain-eko alkategaia: *Emaitzak oso txarrak dira guretzat, dezepzio handia hartu dugu. Ustez lan txukuna egin dugu urte hauetan eta baita kanpainen ere. Bigarren zinegotzia galtzeak batzorde guztietara taldekide bakar batekin joatea dakar, gaizki ibiliko gara alde horretatik. Eta orokorrean, aldaketa datorrela ematen du, baina ez dago ezer erabakita. Taldekideen artean hitz egin dugu eta ez dugu ezer garbi utzi. Aukera guztiak zabaldua daude, entzun egin behar dugu besteek zer dioten.*

Udal hauteskundeak 2019 – Aia



AIA

Goizean goizetik giro berezia antzeman zen pasa den igandean Aiako kaskoan. Hauteskunde egunetan gertatzen den moduan, herriko auzo desberdinetako eta baserrietako auzotarrak gerturatu ziren herrigunera botoa ematera, eta aspaldian ikusi gabeko bizilagunekin berriketan jarduteko aprobe txatu zuten askok.

20:00etan puntuan itxi zituzten hautetsontziak Aiako Lardizabal Eskola zaharrean, eta azkar egin zuten boto kontaketa. Lehenengo Europako parlamenturako botoak zenbatu zituzten, eta ondoren udal hauteskundeetarako botoak kontatzeari ekin zioten. Ez zen ezustekorik izan, ohiturari jarraituz EAJ izan baitzen alderdirik bozkatuena Aian, 549 botorekin. EH Bildu izan zen bigarren indarra, 417 boto jasota. 2015eko datuekin alderatuz, gora egin du aurtengo udal hauteskundeetan koalizioak, eta aurreko agintaldian izan zuena baino zinegotzi bat gehiago izango du.

Hortaz, datozen lau urtetan sei zinegotzi izango ditu EAJk eta bost hautetsi EH Bilduk. Bestalde, PSE-EE 23 boto lortu zituen Aian, baina ez du ordezkariarik izango udalbatzan.

Hurrengo hautetsiek osatuko dute Aiako udalbatza: Nekane Arrizabalaga izango da alkatea, eta EAJko Arkaitz Iruretagoiena, Iñigo Etxabe, Miriam Sarasola, Estibaliz Lizarreta eta Aharoa Zuloaga; EH Bilduko Iñaki Telleria, Hodeiza Sallen, Aitor Arregi, Gontzal Aldai eta Irati Eizagirre izango dira zinegotziak.



Iñaki Telleria, EH Bilduko alkategaia. KARKARA

Batzar Nagusietarako hauteskundeak 2019

Boto Kopurua

EAJ	514
EH Bildu	401
PSE-EEk	24
Podemos	44
PP	5

EAJko alkategai Nekane Arrizabalaga oso gustura dago lortutako emaitzarekin. *Zinegotzi bat galdu dugu, baina gu normalean 5-6 zinegotzi buelta horretan ibili izan gara beti, eta pozik gaude beste behin alderdirik bozkatuena izan garelako.* Bestetik, Arrizabalagak eskerrak eman dizkie EAJren kudeaketan sinetsi duten aiarrei. *Herritarren babesari esker, hurrengo lau urtetan, gure herri eredia lantzen jarraituko dugu, Aia hobeto lortzeko helburuarekin.*

Aiako EH Bilduko zerrendaburu Iñaki Telleriak EAJ zoriondu du, eta Aiako EH Bilduko kideak ere gustura daudela aipatu du. *2015eko udal hauteskundeetan galdu genuen zinegotzia berreskuratu dugu. Dena dela, abstentzioa oso handia izan da, %34,11koa, eta hori kaltegarria da denontzat; uste dut garrantzitsua dela alderdiok gaiaz hausnarketa egitea. Guri esaterako, bozkatzera gazte gutxi hurbildu zela iruditu zitzaigun; agian ez dugu asmatu gure mezua gazteei helarazten.*

Agintaldi berrian oposizioan izango da EH Bildu, baina bi alderdien arteko harremana hobetzea eta elkarrekin lan egitea oso garrantzitsua direla uste dute. *Elkar ulertzea ezinbestekoa dela pentsatzen dugu, gatazkak beti baitira kaltegarriak.* Ildo horretan, Telleriak gogoratu du, herriaren eta udalaren arteko zubia izan nahi duela EH Bilduk. *Gure taldea beti herritarrei irekita egongo da, eta aiarren batek zalantza bat badu, guregana jo dezake, eta guk bideratuko dugu gaia dagokion sailera.*



Nekane Arrizabalaga, EAJko alkategaia. KARKARA



“Kantatu zidan poemaren doinua berarekin joan zen”

Oihana Alkortak 2005ean olerki bat oparitu zion Alex Tello lagunari. Hamalau urte geroago **Galerak (Gaztelupeko hotsak) diskoa argitaratu dute Alkortaren omenez.** Poema hura izan da proiektuaren hasia.



Ignacio Arakistain, Alex Tello eta Lucia Arzallus, *Galerak* diskoaren aurkezpenean. NOAUA!

TESTUA: INTZA UNANUE

ARGAZKIAK: NOAUA!, KARKARA

Pasa den maiatzaren 17an Oihana Alkorta abeslariaren heriotzaren 12. urteurrena izan da. Alex Tellok, beste musikari batzuekin batera *Galerak*, *Oihana Alkortaren poema baten segida* lan kolektiboa argitaratu du, artistaren omenez. Sorkuntzan parte hartu dute Ignacio Arakistain eta Lucia Arzallus piano-jotzaileek, Aitor Gorosabelek, Labrit Zabalak, Jon Gurrutzagak, Xabi San Sebastianek, eta Couple, Bihozkada eta Natali taladeek, besteak beste.

Hasierako hazia

Oihanak eta Alexek duela 14 urte ezagutu zuten elkar, Zarautzen, tabernari lanetan. Musikaria zendu baino bi urte lehenago opari bat egin zion Alex Tello lagunari: *Igande arratsalde batean, bere poema bat abestu zidan, horrekin letra bat egingo ote nion galdezka*. Tellok poema horren baitan zirriborro batzuk egin eta istorio bat osatu zuen hurrengo hilabeteetan. Gordeak zituen, haiekin zer egin jakin gabe.


Ezbeharraren ondoren Orion omenaldia egin zioten lagun eta senideek, eta poemak bertan partekatzeke gonbita egin zidaten, ez nintzen atrebitu. Ordutik ibili naiz olerkiekin zerbait egin nahian. Bidean, Ignacio Arakistainekin egin zuen topo, ondoren, Lucia Arzallusekin. Oihana

AIREAN IDAZTEN DIZKIZUT

Itsasoko olatuen gainean
nabigatzen dihardut,
itsasoko olatuen gainean
harkaitz honetan hotz dago,
hotz dago, hotz dago, hotz dago.

Urrunean argi gorridun
itsasontziak agur esaten dit
eta hemen nago ni
kaixo esaten
zerura begira
airean idazten,
airean idazten, airean idazten, airean hotz dago.

(*Oihana Alkorta, Kilometroak Zarautz- Orio 2004*)



Alkortak Tellori emandako olerki originalaren irudia.

Alkortaren poema hura ardatz harturik proiektuari hasiera eman zioten: *Oihanak oparitu zidan poema haren doinua berarekin joan zen, ez genuen inon grabatuta. Baina ez zait inoiz ahaztuko ze indar eta distirarekin kantatzen zuen.* Behin lanean hasita, Arzallusek poema musikatu zuen. *Abestuta entzun nuen lehen aldi hark, igande arratsalde hartara eraman ninduen.*

Lehen poema hura izan zen bi urte eta erdian jorratu duten proiektuaren hazia. Hasieran diskoarekiko Telloren ideia zerbait intimoa eta polita sortzea zen; pianoa, ahotsa eta olerki errezitatuak. *Prozesuan zehar bira bat eman genion ideia horri, musikari askok hartu dute parte, nire lagunak, Oihanaren lagunak... Jende askoren proiektua bihurtu da.*

Alkortaren arima diskoan

Galerak entzuten duenak fikziozko istorio poetikoak lantzen dituzten Jazz eta Pop estiloak atzemango ditu hasieran, amaiera aldera Rock doinuak. *Lagun galduaren ezinezko bilaketaren historia kontatzen dute kantuek, Oihanaren poeman konprimituta dagoen kontaketa ireki dugu eta dramaturgia bat hartu dute letrek. Dena da poema bat.*

Hasieran kutsu tristea hartzen du diskoak, kantuek aurrera joan ahala alaitasuna ageri da: *Oihanaren bizitza ezagututa fikzio hau guztiz bat dator berarekin, trama bat da istorio hau, bere bizitzan drama asko egon zen baina aldi berean oso pertsona alaia zen bera, diskoa bezala.*

Oihanaren *Zure oihuak heltzean* olerkiak ematen dio hasiera 13 kantuz osatutako diskoari, Onintza Manterola, Alkortaren lagun min oriotarrak jarri dio ahotsa. Bederatzigarren kantua, berriz, *Airean idazten dizkizut* da, Oihana beraren ahotsean, Kilometroak 2004rako osatu zuten bilduman berak egindako ekarpena. Itsasoari buruz mintzatzen da bertan.

Hasiera berri bat

Alexek kantaria ezagutu zuenean, jada, Benito Lertxundi eta Urko abeslariarekin kantatzen zueneko etapa atzean utzia zuen. Poema oparitu zionean, hasiera berri baten bila zebilen, berriz ere kantatzera bueltatzeko asmoz. *Artista puska bat zen, ez zegoen lehen lerro horretan, baina ikaragarritzko berezko talentua zuen, merezi zuen. Egia da, ordea, askotan maila gorenean daudenak bakarrik omentzen ditugula, beste mailakoei arreta handirik jarri gabe.* Proiektu honekin, aldi berean, Oihanaren alde artistikoa aldarrikatu nahi izan du. *Batzuk ez dute arrakasta bilatzen, besteek badute talentua baina ez dira maila gorenera iristen.*

Galerak taula gainean

Diskoarekin batera, omenaldiak Usurbilgo Sutegin jarraitu zuen. 2018ko azaroak 10ean kontzertua eskaini zuten proiektuan parte hartu zuten musikari gehienek: *Kontzertua oso polita izan zen, kantuekin batera CDan dauden ilustrazioak proiektatu ziren baita poemak errezitatu ere, dantzariarekin batera... Ikuskizun bihurtu genuen diskoa, apala baina aldi berean handia.*

Emanaldia osorik grabatu eta Galerak diskoarekin batera salgai jarri dute DVD-a. *Oso emaitza desberdinak lortu ditugu batarekin zein bestearekin. Diskoa askoz intimoagoa da, kantuek bakarrik ditu, eta zuzeneko ikuskizunak indarra du, elementu artistiko ugariarekin.*

Pasa den urteko azarotik orain arte ez dute beste kontzerturik eskaini. *Ondo legoke aukera izatea, Orion ere ikuskizuna osorik aurkeztea aukera polita litzakeela uste dugu. Baina lan handia da zuzeneko mugitzea. Lucia eta Ignacio egia esan gogoz daude horretarako. Oriotik deituko baligute, gu prest azalduko ginatete, baina parte hartzaile asko gara eta behar teknikoetan bakarrik... ez da merkea izango!*



Galerak, diskoaren azalera. XABIER SAGASTA

Sutan dantzan

Kritika Sutan dantzan

Julen Alonsok, 'Sutan dantzan' diskoa argitaratu zuen pasa den neguan.



Sutan dantzan diskaren azala.

Azken urteotan ohituak geunden Julen Alonso Euskal Herriko hainbat trikitixa txapelketatan ikusten, baina oraingo honetan ezusteko polit bat eman digu bere kanta propioekin osatutako diskoa aurkeztu digunean.

Sutan Dantzan izena du diskoak, baina ez dabil Julen suarekin jolasean. Soinua ezin hobeto menderatzen du Julenek, eta ondo daki zer egin instrumentua esku artean hartzen duenean. Soinu txikia jotzeko duen gaitasun apartaz baliatuz hamar kanta berri ekarri dizkigu bere diskoan, Julenek berak konposatuak denak.

Hor aurkituko ditugu fandango eta arin-arinak, baita balts eta bestelako erritmoak ere, zenbait unetan Kepa Junkeraren hasierako disko haiek gogoraraziko dizkigutenak. Trikitixa soilez egindako kantuak batzuetan, beste instrumentu batzuek lagundutakoak bestetan, baina protagonista nagusia trikitixa dela beti ere. Bi hitzetan esanda, trikitixarekin egindako trikitixa-disko autentiko bat.

MIKEL IRURETAGOiena



Sinergia | fisioterapia & ikerkuntza

· Lesioak: bihurdurak, tendinitisak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta heduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errehabilitazioa.

· Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesotaping-a, pilates, abdominalaletako gimnasia hipopresioba (GAH), REDCORD.



943 13 05 77
685 71 85 95

Ibai Ondo 1, Bajo - Orio
sinergiafisioterapia.com

ZINGIRA ESKOLA



“Ez dugu animaliarik.”

Ainhoa Yarza eta Domi Srzednicki

Zirkuko artistak

Nola eta zergatik hasi zineten zirkuan?

Domi Srzednicki: Betidanik gustatu izan zait antzerki eta ikuskizun mundua. Bidaiatzen hasi nintzenean zirko munduko pertsona askorekin egin nuen topo. Frantzian, adibidez, artista ugari ezagutu nituen eta nire lehen malabareak oparitu zizkidaten.

Ainhoa Yarza: Ni jostuna naiz.

Bartzelonan zirko mugimendu handia dago eta han bizi nintzenean, artistaz inguratuta bizi nintzen.

Nolakoa da zuen zirkoa?

A.: Hainbat teknika erabiliz sortutako antzerki baten antzekoa dela esan daiteke. Ikuskizunak beti helarazten du mezua bat. Hori, guretzat, oso garrantzitsua da. Konpainiak *Tetes de Mules* izena du eta bi familiek osatzen dugu.

D.: Zirku berria deitzen zaion zirko mota bat da; diziplina ezberdinak batuta sortzen den formula berria. Antzerkia, musika, magia, txotxongiloak, istorioak... daude. Ez dugu animaliarik.

Zergatik animaliarik gabe?

Ez gaude animalia basatiak bere bizitokitik atera eta kaiolan sartzearen alde.

Hori ez da bizitza ona haientzat Gainera, pertsonekin bakarrik gauza harrigarriak egin daitezke.

Zein herrialdeetan egon zarete?

A.: Herrialde asko ezagutu ditugu zirkuaren bitartez. Bidaiatzeko modu bat ere bada, zirkuarekin dirua irabazi edo trukeak egin ditzakegulako.

D.: Europako herrialde dezentetan zehar ibili gara konpainiarekin: Bulgaria, Polonia, Grezia, Alemania, Errusia, Frantzia... Europatik kanpo ere ibili izan gara.

A.: Ikuskizunak oso ezberdin ateratzen dira herrialde bakoitzean, batean barreak eragiten dituenak bestean beldurra sor dezake. Toki batzuetan ikusleek animo eta txalo zaparradak eskaintzen dituzte, besteetan hotzagoak dira.

D.: Euskal ikusleak gertukoak dira orokorrean eta kontaktu fisikoa onartzen dute.

Nola prestatzen dituzue emanaldiak?

D.: Prozesu oso luzea da, sorkuntza prozesua deitzen zaio. Egun osoa hizketan, asmatzen eta inprobisatzen pasatzen dugu.

Ondoren, entrenamenduak egin behar dira: malabareak, magia trukoak... Ainhoak, adibidez, trajeak ere josten ditu.

A.: *Sorkuntza erresidentziak* deitzen direnak daude. Konpainiek bertan igarotzen dituzte egunak ideia eta gidoia asmatzen.



Suasti Sanchez
eta Usua Azkue

Helduen mundua

Guretzat helduen mundua ulertzea ez da erraza, ez da oso justua.

Gauzak eskatzen dizkigute eta haiek ez dituzte betetzen. Esaten digute ez despistatzeko telefonoarekin, eta haiek despistatzen dira. Ez eztabaidan aritzeko esan, eta haiek etenik gabe eztabaidatzen dute. Negar egitea ongi dagoela eta gero berak beti aguantatzen dabilta. Euskaraz hitz egiteko, eta gero, helduen artean erdaraz egiten dute.

Jolasteak alde on asko dituztela esaten joaten dira, liburu potolo eta teoriak irakurtzen. Baina, zenbat heldu ikusten dituzue parkean jolasten?

Badakigu ahal dutena egiten dutela, agian heldua izatea ez dela erraza. Baina, esfortzu txiki bat eskatu nahi diegu. Animo! Espero dugu hau irakurrita piska bat espabilatu eta haurrak imitatzen hastea. Kar, kar, kar

Gu laister helduak izango gara baina helduen mundua aldatzeko asmoz gabiltza! Beraz, hasi ateratzen barruan duzuen haurra.

Gu laister helduak izango gara baina helduen mundua aldatzeko asmoz gabiltza!

Karkara³⁰urte

karkara.eus



*KARKARA-kide
baten harrikada*

Marisa Arruabarrena

***“Askotan geratzen ninduten kaletik esanaz
halako gaia edo bestelako kexa hura ere
KARKARAn idatzi beharko genukeela”.***

Hau idazten hasi aurretik, KARKARako erredakzio taldekidea noiztik eta noiz arte izan nintzen argitu nahi nuen, baina 2007tik aurrerako zebakiak bakarrik daude karkara.eus atarian, eta ni horiek guztiak baino lehengokoa naiz, zaharra goa, alegia.

Ondoren, anekdotaren batean pentsatzen jarri naiz... Zer etorriko burura eta, duela urte batzuk Orioko plazan KARKARari egin zitzaion omenaldia. Banaka-banaka aipatu ziren hainbat izen eta nirerik ez zen entzun! Kideak zORIOntzeko unean webguneko zenbakiak izango zituzten kontuan. Hala izango zen, bai... Kar, Kar, Kar.

Baina, nire oroimenak ez badit huts egiten, ni ere izan nintzen KARKARako erredakzio-kide, ala? Baietz esango nuke! Gainera portada bat baino gehiagotan ere azaldu naizela esango nuke eta, nik uste, nire erreportaje, elkarrizketa eta iritziak ere azaldu izan direla...

KARKARako lanak utzi eta ama izateari heldu nion garai hartan askotan geratzen ninduten kaletik esanaz halako gaia edo bestelako kexa hura ere KARKARAN idatzi beharko genukeela...

Eta ni, behin eta berriz adierazten jadanik ez nintzela KARKARA-kide.

Guztia amets bat izan ote da ba...

eta hamaika bitxikeria



Ederra izan zen

Olatz Artola

"Susmoa dut, "kanpinera" sekula izan ez naizen arren, haiek lortzen duten herriko NAN estilokoa lortu nuela".

KARKARAK kaleka (jakin bat) esan nahi zuela, ubera uretan ez ezik bihotzean ere uzten duela arraunak, kalean topatu ordez *biyau* egiten zaretela, ibaia *erriyoa* izateaz gain herriaren hezurdura dela, labur idazten ez duenak ez dakiela idazten, eta zedarritzen. Hori koloreko odola existitzen dela eta Orio zapaltze hutsarekin transmititzen dela; baina, hori bai, *oriyoko* alaba izan gabe *oriyotarra* ez naizela sekula izango. *Zikinbrillo* adjektibo bat dela, Google maps-en agertzen ez den arren Zakillaneko aldapa existitzen dela.

Zimitoriyua elizaren harrera dela, probalekua areto multifuntzionala dela, itsasoarekin egiten duela muga eta baita zazpi udalerrirekin ere, monogamia hautsi eta posible dela auzotarra eta ayarra sentitzea, Aristerrazun pandero eta trikia hardcore estiloan jotzen dituztela, *peñapetril* ez dela mitoa...

KARKARAN herritar izateko beste modu bat ezagutu nuen. Eta KARKARAN herritarrak ezagutu ahal izan nituen, oriotarrak eta aiarrak: Miri, Idurre, Ritxi, Eli, Lukene, Torrotxo, Onintza, Joxemari, Axpe, Sonia, Jabier, Pat, Lore, Iñaki... eta haren ahizpa, eta ama, eta amaren ama, eta biloba, eta harekin ezkonduko *kanpinera*...

Eta susmoa dut, *kanpinera* sekula izan ez naizen arren, haiek lortzen duten herriko NAN estilokoa lortu nuela KARKARAN lan egitean.

Zaharren Babeslekuak Santanderrera eta Algarvera bidaiak antolatu ditu



Orioko Zaharren Babeslekuak irteera antolatu du ekainaren 26rako. Oraingo honetan Kantabriako Santander hiria ezagutuko dute. 08:30ean irtengo dira Orioko autobus geltokitik, eta bazkalaurretik denbora libre izango dute Santander hiria ezagutzeko.

14:00etan bazkaria egingo dute Querida Margarita jatetxean, eta hurrengo izango da menua: Entsalada tradizionala, mendrezka eta ahuakatearekin, legatz-solomoa labean erreta patata marinerekin, tenperatura baxuan egindako arkumea, marrubiak natarekin, edariak eta kafea.

Irteeraren prezioa 35 eurokoa izango da, eta ekainaren 10ean jarriko dituzte

txartelak salgai, 16:00etatik 18:00etara. Zaharren Babeslekutik jakinarazi dute, autobuseko plazak zozketa bidez esleituko direla.

Irailan Algarvera

Irailaren 9tik 17ra, berriz, Portugalgo Algarve eskualdera bidaiatuko dute. 3 eta 4 izarretako hoteletan ostatu hartuko dute parte hartzaileek, mantenu osoan, eta irteerak egiten dituztenean jatetxeetan egingo dituzte otorduak; hori ere bidaiaren prezioaren barnean sartuko da.

Horrez gain, Algarveko hainbat txoko eta monumentu ezagutzeko gidaria ere izango dituzte.

Bidaiaren inguruko informazio zehaztua jasotzeko edo izena emateko, Txomin Iribarrekin jarri behar dute harremanetan, 626-471-423 telefono zenbakira deituta.

Hurrengo da ibilbidea:

-Irailak 9. Oriotik irten eta Medirara iritsiko dira.

-Irailak 10. Evora, Serpa eta Quarteira ezagutuko dituzte, eta azken horretan hartuko dute ostatu.

-Irailak 11. Algarveko hiriburu Farora egun erdiko irteera egingo dute.

-Irailak 12. Silves ingurua ezagutzeko irteera egingo dute.

-Irailak 13. Sagres, Cabo San Vicente eta Lagos ezagutzeko egun osoko irteera egingo dute.

-Irailak 14. Albufeira ingurura egun osoko txangoa, Vilamoura, Albufeira, Portimao, eta Almacin herriak ezagutuko dituzte.

-Irailak 15. Huelvatik gertuen dagoen ingurua ezagutzeko irteera, Vila Real de San Antonio eta Tavira herrietara.

-Irailak 16. Algarvea utzi eta Caceresera joango dira, eta Mertola eta Elvas zeharkatuko dituzte.

-Irailak 17. Caceresetik Orio aldera abiatuko dira.

Hondartza

Aurten BPXport enpresak kudeatuko du Orioko hondartzako zaintza



Gutxi falta da hondartza denboraldiari hasiera emateko, eta aurten, aldaketak izango dira Orioko hondartzan eta kanpinean. Izan ere, datorren udan ez du Gurutze Gorriak kudeatuko Orioko hondartzako eta kanpineko igerilekuko zaintza. Orioko Udalak lehiaketa publikoa aurkeztu zuen, eta BPXport enpresak irabazi du. Hala, BPXport arduratuko da Orioko zaintzaz.

2006. urtean sortu zuten BPXport enpresa, Hernanin, eta kirol zerbitzuen kudeaketan aritzen dira. Momentuz, Gipuzkoako hiru hondartzatako zaintza kudeatuko dute aurten; Oriokoa, Zumaikoa eta Donostiakoa. Dena den, herri gehiagotan aurkeztu dira lehiaketa publikora.



Literatura

Anjel Lertxundi omendu dute Literaturian

Anjel Lertxundi idazle oriotarra omendu zuten maiatzaren 11an Zarauzko Literaturia jaialdian. 25 urte bete ditu hark idatzitako *Otto Pette* eleberriak, eta hori aitzaki hartuta, Lertxundiren omenez topa egin zuten Zarauzko Musika Plazan. Patxi Santamariak eleberrian oinarritutako performance bat eskaini zuen, eta bertaratutakoek txundituta ikusi eta entzun zuten. Segidan, Izaskun Etxabe Literaturiako antolatzaileak oroigarria eman zion Lertxundiri, kioskoaren gainean. Hala esan zion Etxabek oriotarrari: *Omenaldi hau ez da Otto Pettek 25 urte bete dituelako, asko maite zaitugulako baizik*. Lertxundik, eskerrak emateaz gain, Salvatore Mitxelena idazlea izan zuen gogoan saria jasotzeko unean. Ezagutu zuen lehen idazlea izan zela esan zuen, eta ohore bat izango zela igandean berari buruzko mahai-inguruan parte hartzea.

Orion

Kinto afariak

1943an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Sarasua erretegia izango da bazkaria, ekainaren 1ean.

Urtero bezala, 1943an jaiotakoek lagun arteko bazkaria egingo dute ekainaren 1ean, larunbatarekin. Aurten 38 urte beteko dira bazkaria antolatzen hasi zirenetik.

14:00etan izango da bazkaria Sarasua erretegia, ordu erdi bat lehenago juntatuko dira denak plazan, 13:30ean.

Izena emateko, Fernando Larrañagari deitu behar zaio (943 832 666) maiatza amaiera baino lehen.

1967an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Ekainaren 15ean izango da bazkaria, Hondartzako Orioko Barran, 14:30ean. Egunari poteoan emango zaio hasiera 13:30ean Salatxo tabernan.

Izena ere Salatxo tabernan eman beharko da ahalik eta azkarren.



Literatur lehiaketa 2019

Eskola-umeen literatur lehiaketako sariak banatu dituzte maiatzean

Maiatzaren 18an, larunbatarekin, banatu zituzten Orioko Udalaren eskola-umeen literatur lehiaketako sariak, eta udaletxeke udalbatzar aretoa jendez bete zen hitzordurako. Orioko alkate Joxe Anjel Zalduak, udaleko Euskara Batzordeko kideek eta udaleko euskara teknikariak banatu zituzten sariak, eta ikasleek gurasoen eta lagunen txalo zaparrada artean jaso zuten aitortpena. Saritutako hurrek eta gaztetxoek liburu bana, oroigarria eta lehiaketan saritutako lan guztiak biltzen dituen liburua jaso zituzten opari.

Literatur lehiaketako liburuak ehun orrialdetik gora ditu, eta 61 lan biltzen ditu denera; Orioko ikasleek egindako olerkiak, ipuinak eta marrazkiak aurkitu daitezke bertan. Nahi izanez gero herritarrek eskuragarri dute liburua Orioko Kultur Etxean, eta orio.eus webgunean ere deskargatu daiteke.

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

- Logela alokagai, Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652551550

- Logela alokatuko nuke Orion. Beste lagunen baten bila ere banabil, elkarrekin etxebizitza bat alokatzeko. Tf: 688690385

Lan eskaintza

- Langile bat behar da Goxokin, arratsaldez lan egiteko. Esperientziaduna. Tf: 661351162 edo 943833920

Lan bila

- Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest. Paperak eta gomendio orriekin. Patricia. Tf: 674 12 32 93
- Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544

- Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinako zaintza, garbiketa lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziekin.

Tf: 661133295

- Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrak emateko. Lehen hezkuntzan graduatua. Umeekin esperientzia handikoa.

Tf: 636312231

- Neska lan bila. Barnezaintzaile, garbiketa lanak eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin Tf: 632582365
- Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tf: 676441327

- Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tf: 642696038

Salgai

- 13 metroko trasteroa salgai Kale Nagusian. Tf: 616300747

Etxe bila

- Familialia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabilta. Tf: 661331113

ITSASOA

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	03:50 eta 16:12	09:55 eta 22:14	○
02	04:29 eta 16:49	10:33 eta 22:53	○
03	05:07 eta 17:27	11:11 eta 23:33	○
04	05:47 eta 18:06	11:51 eta ____	○
05	06:29 eta 18:47	00:15 eta 12:32	○
06	07:13 eta 19:32	08:02 eta 20:22	○
07	08:02 eta 20:22	01:47 eta 14:04	○
08	08:56 eta 21:19	02:40 eta 14:58	○
09	09:58 eta 22:23	03:39 eta 15:59	○
10	11:09 eta 23:36	04:45 eta 17:08	○
11	12:23 eta ____	05:56 eta 18:20	○
12	00:49 eta 13:33	07:05 eta 19:30	○
13	01:57 eta 14:33	08:08 eta 21:31	○
14	02:56 eta 15:26	09:2 eta 21:25	○
15	03:48 eta 16:12	09:40 eta 22:13	○
16	04:34 eta 16:54	10:33 eta 22:57	○
17	05:16 eta 17:34	11:14 eta 23:39	○
18	05:56 eta 18:12	11:52 eta ____	○
19	06:35 eta 18:50	00:19 eta 12:30	○
20	07:13 eta 19:27	00:59 eta 13:09	○
21	07:51 eta 20:06	01:39 eta 13:48	○
22	08:32 eta 20:48	02:20 eta 14:30	○
23	09:16 eta 21:33	03:04 eta 15:16	○
24	10:06 eta 22:25	03:53 eta 16:07	○
25	11:04 eta 23:24	04:46 eta 17:05	○
26	12:06 eta ____	05:45 eta 18:07	○
27	00:27 eta 13:08	06:45 eta 19:09	○
28	01:29 eta 14:04	07:41 eta 20:05	○
29	02:24 eta 14:53	08:32 eta 20:56	○
30	03:14 eta 15:39	09:19 eta 21:44	○

ZAINZAKO BOTIKAK

- EKAINA:
- 1ean eta 2an, Redondo.
 - 3an, Etxeberria.
 - 4an, Gallo.
 - 5ean, Redondo.
 - 6an, Lasa.
 - 7an, Iriarte.
 - 8an eta 9an, Esparza.
 - 10etik 14ra, Lasa.
 - 15ean eta 16an, Gaminde
 - 17an, Redondo.
 - 18an, Zulaika.
 - 19an, Lasa.
 - 20an, Esparza.
 - 21ean, Gaminde.
 - 22an eta 23an, Larrañaga.
 - 24an, Gallo.
 - 25ean, Iriarte.
 - 26an, Lasa.
 - 27an, Etxeberria.
 - 28an, Larrañaga.
 - 29an eta 30ean, Iturria.
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Esparza:** Santuiturri plaza, 5-6. 943 50 47 83 Zarautz
- Gallo:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Gaminde:** Gipuzkoa Kalea, 68. 943 12 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Iturria:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- Redondo:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz



Orio

Irteerak

- Ekainaren 16an, Txurumuskik antolatuta irteera Sendaviva parkera, LH 3-6 maila arteko ikasleentzat.
- Ekainaren 26an, Zaharren Babeslekuak antolatuta, egun pasa Kantabriako Santander hirira. Irteera 08:30ean autobus geltokitik.

Musika

- Ekainaren 7an, ostiralarekin, Iker Laurobak, Leire Letuk eta Urbil Artolak kontzertua eskainiko dute Kultur Etxean, gaueko 22:00etan. 100 gonbidapen daude Kultur Etxean jasotzeko.

Dantza

- Ekainaren 23an, igandearekin San Juan Gaueko dantza emanaldia Harribil Dantza Taldearen eskutik, herriko haur eta gaztetxoekin batera. 21:00tan dantzaz eta musikaz lagunduta kalejira. Ondoren,

ikastolako plazoletan emanaldia suaren inguruan.

Jaialdiak

- Ekainaren 1ean, *Kaosa eta dilistak* jaialdia izango da Etxeluze gaztetxean. 12:00etan hasiera emango diote dilista txapelketari; 14:00etan izango da herri bazkaria, borondatearen truke, eta jarraian, jolasak egingo dituzte. Txapela jantzita eramateko eskatu dute antolatzaileek.
- 20:00etatik aurrera kontzertuak hasiko dira Etxeluzen, eta guztira, bederatzi talde taularatuko dira: Lokuria, Managaitz, Disasko, Peëdog, Saña, Polikarpa y Sus Viciosas, Kamorräh, Cult Of Misery eta Polemika.
- Ekainaren 15ean, larunbatarekin, Ikastolaren Eguna ospatzeko herri bazkaria izango da.
- Ekainak 15ean, larunbatarekin

Zaragueta Eskolaren festa ospatuko da. 11:00etan, ikasleen emanaldia. 12:30ean, Nazioarteko janarien dastaketa. 13:30ean, bazkari herrikoia frontoian. 14:00etatik 18:00 etara, puzgarriak eta tailerrak. 16:00etan, jolasak. 17:00etan, guraso eta seme-alaben arteko futbol partida. 17:30ean, karaokea eta bingoa.

Jaiak

- San Pedro Jaiak ekainaren 28tik uztailaren 1era.

Aia

Dantza

- Ekainak 23an, igandearekin San Juan Gaueko dantza emanaldia plazan.



Galerak, Oihana Alkortaren poema baten segida diskoa irabazi nahi?

Hiru disko zozketatuko ditugu galdera hau erantzuten duten laguntzaileen artean.

NOIZ SORTU ZEN KARKARA?

Bidali erantzuna karkara@karkara.eus e-postara edo WhatsApp bidez 688 85 73 05 zenbakira.

